

Ariketa hauek Ikasbileko 1864065 atazan aurkituko dituzu

Audioaren erreferentzia: JJ-19 Mozorro bila

Mailak: B2-C1

Funtzioa: iritzia eman, balorazioak egin, entzundakoa birkontatu,

Adierazpide linguistikoak: lexikoa (*mozorro, inauteri, jantzi, festa...*), zer/nola mozorrotu, -tzekotan, balorazioak egiteko (*Izan liteke..., tamalez..., iruditzen zait, ez nuke...*)

Azken ekintza: Euskaltegiko inauteri festarako taldearen mozorroa aukeratu eta gonbidapena idatzi.

EGITEKOAK

1-Ikaskelara etorri aurretik egitekoa. Ikaslearen aurrezagutzak suspertu: mozorrotzeari buruz daukan iritzia eta bere ohiturak zein diren jasotzeko jarduera. Testua irakurri eta galderei erantzungo die jasotakoa ikaskelako mintza-saioan partekatu dezan.

Testua:

Nondik-norakoa dugu barruan inauterietan mozorrotzeko grina?

Mozorrotzea ohikoaren kontrako antidotoa da. Inauteria bada zoramen esparru bat, askatasun esparrua eta, azken batean, gorteetan lehen bufoiak zeuden bezala - eta bufoiak ziren erregeari edo gorteari inork esan ezin ziezaiokeena esaten zuena- gaur egun, hori komikoek telebistan betetzen dute neurri batean. Nik uste dut hori bazegoela, eta gizarte mailan, inauteriak ziren. Inauteriak ziren egun-bufoiak, egun horietan dena zen posible eta nik uste dut hori ere badela. Gizarte guztiek, aginte guztiek behar diote eman herritarrari bere egonezina, bere protesta, bere adierazi beharrak asetzeko esparru bat edo modu bat. Gizarteak, nolabait, urteko egun guztietan kargatzen zuen zama arintzen zuen inauterietan. Egun horietan jendeak egiten badu egiten duena, eta gai bada barrutik ateratzen zaion zoramen momentu hori gozatzeko, magia momentu hori gozatzeko, hori da personak barruan daukan zera bat. Denek ez dute aukera hori ateratzeko, eta nik uste dut, inauteriak eta halako festa-giroak eskaintzen dutela horretarako aukera, baina denok ez gara berdin momentu guztietan. Nik uste dut "mozorro hori" ere bazarelako egiten duzula egiten duzuna.

Kike Amonarriz



Galderak:


1. Ados al zaude Kike Amonarrizek eman dituen arrazoiekin? (Erreparatu testuan azpimarratuta dauden zatiei).
2. Eta zuk, ba al duzu mozorrotzeko ohiturarik?
3. Zergatik mozorrotzen zara zu, edo zure ingurukoak?
4. Nolakoa zen ikusi edo jantzi duzun mozorrorik onena? Aipatu mozorro horren ezaugarriak (dibertigarria, sinplea, oso landua, osagarri askokoa...)

2- Ikaskelan amaitu ondoren egitekoak. *Mozorro* hitzaren erabilerari erreparatu ondoren testu labur batean jasoko dute idatziz elkarrizketan mozorrotzeari buruz esan dutena.

1- Entzun aurretik



1.2 Hainbat mozorro

  elkarrizketan aipatuko diren hainbat mozorrori buruzko iritzia emango dute binaka. Irrati-nobelako protagonistek zer pentsatzen duten, elkarrizketa entzun ondoren jakingo dutela adierazi zaie. Ondoren, mozorroek oro har izan beharko lituzketen ezaugarriak partekatuko dituzte ikaskidearekin.

 jardueran erantzundakoa erabiltzeko proposatu zaie.

2- Entzun bitartean

2.1 Zer jantzi?

  Elkarrizketa entzun eta mozorroa aukeratu duten ala ez erantzungo dute.



Zuzenketa: Ez dute ezer zehaztu, baina Joneri zerbaite bururatu zaio

2.2 Jone, inauterietako erregina

   Jone ez dago inauterietan ateratzeko animatuta. Arrazoiak idatzi behar dituzte

Zuzenketa: aspaldi ez da mozorrotu, ez da gehiegi ateratzen, agian Niko zaindu beharko du asteburuan

2.3 Nolako mozorroa?

  Mozorroaren ezaugarrien artean aipatu EZ dutena aukeratu behar dute.

Zuzenketa: makillatuta joatea ezinbestekoa da

3. ENTZUN ONDOREN

3.1 Inauteri festa

    euskaltegian ospatuko duten festarako taldeko mozorroa adostu eta gonbidapena idatziko dute:

1. Adostu zer egingo duten: mozorro lehiaketan parte hartu, koreografiaren bat...
2. Partekatu mozorro egokiaren ezaugarriak taldean (1.2 ariketan adostu dituzten ezaugarriak erabili)
3. Erabaki zein den taldean mozorrotzeko jantzirik onena, arrazoiak emanaz.
4. Luzatu festara mozorrotuta joateko gonbitea gainontzeko taldeei, ohar-taulan jartzeko idatzi batean jasota.



Gonbidapena idazteko hainbat adibide:

- Datorren... ospatuko dugun inauteri festara...
- Ezinbestekoa izango da...
- Mozorroak izan behar du
- Nahi izanez gero....

BAKARKA EGITEKO ARIKETA

Mozorroa

Mozorroa gora, mozorroa behera ibili dira Jon eta Jone atal honetan. Nola laburtuko zenuke esandakoa? Irakurri *mozorro* / *mozorrotu* hitzei buruzko azalpena, eta ondoren, osatu zure laburpena bertako egiturak eta aholkuak erabiliz.

- Elkarrizketan entzun duzun **“Zertaz mozorrotuko zara?”** galdetzeko modua nahiko zabaldua badago ere, gaztelaniaren “¿de qué te vas a disfrazar? galderaren kalko bat da eta **ez da egokia**. Horren ordez, euskaraz baditugu beste batzuk. Esaterako:
 - *nola / zelan mozorrotuko zara?*
 - *zer mozorro jantziko duzu?*
 - *zein izango da zure mozorroa?*

- Indioz **mozorrotu** / indio **mozorrotu** : **-z mozorrotu** egitura oso zabaldua dago gaur egun. Baina tradizioari begiratzen badiogu, euskarak horren ordez beste egitura batzuk erabili izan ditu:
 - *indio jantziko naiz*
 - *indio mozorrotuko naiz*
 - *indio mozorroa jantziko dut*
 - *indioen moduan mozorrotuko naiz*

- **Merkel mozorroa:**
JON: Merkel mozorroa urte osoan daramazu
JONE: Ez errepikatu Bob esponja mozorroa
- **Mozorrotuta** atera
- Mozorrotu(ko) **da**(dira) / (Niko)... mozorrotuko **dute**
- **mozorrotzekotan...**
- **mozorro bila** (joan, atera...)

TRANSKRIPZIOA

W-JON: Aupa Jone. Inauterietan ateratzeko asmorik?

W-JONE: Ez. Ez zaizkit gustatzen.

W-JON: Ba hori orain izango da. Lehen inauterietako erregina zinen.

W-JONE: Aspaldi ez naiz mozorrotu.

W-JON: Sosa!

W-JONE: Monger!

JON: Aizu lehen ez zinen moskeatuko waptxaparengatik ezta?

JONE: Baina zuk zer uste duzu horrelako txorradekin haserretzen naizela? Gainera zurekin ia 8 urte egon nintzen.. azala.. elefanteena baina gogorragoa daukat...

JON: Animatu aurren eta mozorrotu neska!

JONE: Ezin dut Jon,..

JON: Ez ezazu orain erabili Nikoren komodina.. haurra eta inauteriak oso konpatibleak (bateragarriak) dira eta.

JONE: Ez daukat gogo handirik.. ez naiz gehiegi ateratzen... esan nizun

JON: Ba horregatik... ez duzu gaupasa egin behar baina mozorrotu eta buelta bat ematera behintzat...

JONE: Baina zu ze? Noiztik zara zu Carlinhos Brown?

JON: Jajajaja.. benga Jone, animatu.. eta nahi baduzu Niko ere mozorrotuko dugu.

JONE: Pentsatuko dut... aizu arratsaldean geratuko gara igerilekura joateko?

JON: Bale...

JONE: Oskar, asteburua soilik izan beharrean ostegunetik aurrera geratuko al zara zu Nikorekin?

OSKAR: Zer ba? Ez zait tokatzen...

JONE: Hau ez da tokatzen zaizun loteria bat Oskar. Ia urtebete Chilera joango dena ez naiz ni...

OSKAR: Ia baina gauza batzuk aldatu beharko ditut. Nicolasi ez diozu oraindik ezer esan ezta?

JONE: Nikori? Ez, baina bueno zurekin hitz egin eta berehala esango diot... nik uste poztuko dela gainera

OSKAR: Puzzle bat egin beharko dut antolatzeko.

JONE: Ongietorria nire mundura...

OSKAR: Bueno Jone, ez hasi orain Meryl Streep-en papera egiten.

JONE: Bihar eramango dut eta aurten ez errepikatu Bob Esponja mozorro kutre hori... erosiozu zerbait dezentea...

IGERILEKUAN

JONE: Aizu Jon.. eta zu zertaz mozorrotuko zara?

JON: Ez dakit oraindik... zer ba?

JONE: Aurten igoal aterako naiz...

JON: Lehen esan dizudanarekin pikatu egin zara!

JONE: Ez... bueno apur bat bai...

JON: Noski ba Jone... besterik ez bada bueltatxo bat ematera...

JONE: Ia, baina mozorroarena.. ez dakit

JON: Benga goazen uretara eta gero hitz egingo dugu..

JON: Aspertu naiz ta gainera jende gehiegi dago pizsinan (igerilekuan) orain. Zer pentsatu duzu mozorrorik?

JONE: Ez, eta gainera, mozorrotzekotan beroa izango den zerbait.. ez dut izoztu nahi...

JON: Bale, baina hala ere ez gara kalean ibiliko.. tabernatara joango gara...

JONE: Zuk nahi duzuna jantzi.. ni behintzat eroso eta ongi tapatuta aterako naiz...

JON: Nik uste elkarrekin atera behar badugu hobe dela zerbait berezia pentsatzea ez?

JONE: Nik ez du arazorik baina esandakoa.. ez dut hotzik pasako eta ez dut trasterik eraman nahi...

JON: Hori da hori inauteri izpiritua... orduan fikus bat eta plastikozko suge bat erosi eta Adan eta Eva.. . deskartau ezta?

JONE: Zuk zer uste duzu?

JON: Eta Merkel mozorroa urte osoan daramazunez... horrek ere ez du balio...

JONE: Bert eta Mary Poppins

JON: Jendeak ez du jakingo nor garen.. eta jantziak lortzea ere ez da erraza izango...

JONE: Jendeak ezagutzea nahi baduzu...orduan ni printzesa eta zu apoa...

JON: Popeye eta Olivia?

JONE: Buff ez dakit...

JON: Frankestein eta Frankesteinen neska-laguna?

JONE: Horiek ere konplikatuegiak horrela bat-batean egiteko ez?

JON: Ez dakit ba!

JONE: Iasta.. badakit... perfektua da gainera....